

Erref.- FMR / Legelari aholkularia

DAVID LATXAGA UGARTEMENDIAK, BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEKO GOBERNU BATZORDEKO IDAZKARIAK, HONAKOA

ZIURTATZEN DU:

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Gobernu Batzordeak, 2021eko urriaren 14ko ohiko bileran, 6/21 zenbakiko Akta, besteak beste, honako erabaki hau onartu zuen:

2. gaia.- GUFEn Egitura Organikoaren Araudia aldatzea.

«**Lehenengoa.**– Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen Egitura Organikoaren Araudiaren aldaketa xedatzea, honi erantsitako dokumentuan adierazten diren irismen eta ondorioekin.

Bigarrena.– Agintzea publiko dadila Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, GUFEn iragarki-taulan eta web-orrian».

Eta horrela jasota gera dadin, erabakitakoa betez eta bidezko akta onestetik ondorioztatzen diren baldintzen menpe, agiri hau egiten dut Bilbon, bi mila eta hogeita bateko urriaren hamalauan.

GUFEKO GOBERNU BATZORDEKO
IDAZKARIA

Sin.: David Latxaga Ugartemendia



ERANSKIN BAKARRA

**BIZKAIKO GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEAREN EGITURA
ORGANIKOAREN ERREGELAMENDUA**

LEHENENGO TITULUA

GIZARTE URGAZPENERAKO FORU ERAKUNDEA

I. KAPITULUA

ESKUMEN-EREMUA

1. artikulua

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeari dagokio, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuaren zuzendaritzapean, berariazko programak gauzatzea eta zerbitzu publikoak sustatzeko, emateko edo kudeatzeko jarduerak egitea, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Euskal Lege berriak lurralde historikoetako organoentzat zehazten dituen eta Bizkaikoek agintzen dizkioten jarduera-arloetan eta eskumen-eremuetan.

Programa eta jarduera horiek Bizkaiko Foru Aldundiaren ebazpenen bidez zehaztu eta agintzen zaizkio GUFERI, Foru Aldundiak ezartzen baitu hari emaniko eginkizunaren eta eskumenaren araudi zehatza.

2. artikulua

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea –GUFE, aurrerantzean– izaera administratiboa duen foru-erakunde autonomo bat da, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erregimen Ekonomikoari buruzko 1997ko urriaren 14ko 10/1997 Foru Araukaren 4.2.b) artikuluan ezarritakoaren arabera eratua eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailari atxikia, baina funtzioak deszentralizaturik dituena. Dena dela, Gizarte Ekintza Saileko foru-diputatuari dagokio GUFERen jardueraren zuzendaritza estrategikoa eta haren jardueraren emaitzak ebaluatu eta kontrolatzea.

GUFEk nortasun juridiko berezia du, bere ondarea eta altxortegiak ditu, eta badu gestiorako autonomia ere, denak bere estatutuetan ezarritako baldintzen arabera.

Honako hauek arautzen dute GUFE: bere estatutuek, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Erregimen Ekonomikoari buruzko Foru Arauak eta Administrazio Zuzenbideko gainerako xedapenek; batez ere, toki-araubideari buruzkoek. Hala, bere eskumenen esparruan, GUFEk badu bere helburuak betetzeko beharrezko zaion administrazio-ahalmena, aplikatzekoak zaizkion arauetan aurreikusitako moduan.



3. artikulua

GUFEn misioa da Gizarte Ekintza Sailak beraren ardurapean jartzen dituen pertsonen beharrian sozialak asetzea, kalitatezko gizarte-zerbitzu espezializatuak emanez.

Eginkizun hori betetzeko, bere gain hartzen ditu:

- Erabiltzaileak eta haien bizi-kalitatea sustatzea, beraren jarduera osoaren muina eta xedea diren aldetik.
- Erabiltzaileen eskubideak errespetatzea.
- Atentzio osoa eta pertsonalizatua eskaintzea.
- Erakundeko pertsonen garapena funtsezko balioa izatea.
- Kanpoko erakunde eta laguntzaileekiko lankidetzak.
- Modu eraginkorrean gestionatzea baliabideak.

4. artikulua

Indarrean den legeriaren esparruan, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak bigarren mailako zerbitzuak edo zerbitzu espezializatuak ematen dizkie gizarteko hainbat kolektibori, bere eskumenen arabera.

Bere misioa erdiesteko, GUFEk behar beste baliabide sustatzen ditu, bere zentro eta zerbitzuen erabiltzaileek ahalik eta bizi-baldintza onenak izan ditzaten.

II. KAPITULUA

EGITURA ORGANIKOA

5. artikulua

Honako organo hauek gobernatzen dute GUFEn, eta halaxe daude jasota haren estatutuetan:

- a) Gobernu Batzordea.
- b) Gobernu Batzordeko presidentea.
- c) Gobernu Batzordeko presidenteordea.
- d) Gerentea.
- e) Gobernu Batzordeak beharren arabera sor litzakeen arloetako zuzendariak.

6. artikulua

Honela egituratzen da GUFEn, eman behar dituen zerbitzuak modu eraginkorrean kudeatzeko.



- a) Zerbitzu zentralak. Erakunde osoa hartzen duten zeharkako gaiei erantzuten dieten zerbitzuak dira, edo izaera globala dutenak: Gerentzia, Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza, Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza eta haietan bilduriko arloak.
- b) Zerbitzu deszentralizatuak. Erabiltzaileei laguntza integrala emateko zerbitzuak dira, erakundearen zentroak.

BIGARREN TITULUA EGITURA, ESKUMENAK ETA ERANTZUKIZUNAK

I. KAPITULUA ZUZENDARITZA- ETA AGINTE-EGITURA

7. artikulua

Hona hemen, GUFEn zuzendaritza- eta aginte-egitura:

- Gerentea
 - Laguntza Zerbitzuen zuzendaria
 - Arloetako buruak
 - Zentroetako zuzendariak
 - Zentroetako bitarteko agintedunak
 - Zerbitzu Orokorren zuzendaria
 - Giza Baliabideen zuzendariordea
 - Arloetako buruak

8. artikulua

Honako hauek jotzen dira zuzendaritzako kideztat: gerentea, Laguntza Zerbitzuen zuzendaria, Zerbitzu Orokorren zuzendaria, Giza Baliabideen zuzendariordea, arloetako buruak eta zentroetako zuzendariak. Oro har, eta beren-beregi adierazitako salbuespenak izan ezik, 7. artikuluko egituran jaso diren gainerako guztiak aginteko kideztat jotzen dira.

9. artikulua

Zazpigarren artikuluan ageri diren postuei dagokien zuzendaritza-lanak berekin dakar:

- Planifikatzea, hau da, erabakitzea zer lortu nahi den, eta hura lortzeko estrategiak garatzea.
- Antolatzea, hau da, beharrezko bitarteko eta baliabideak bideratzea.



- Gauzatzea, hau da, nahikoa denboraz aurreikusi eta egoki antolatu dena martxan jartzea.
- Helburuak lortzeko ekintzak eta taldeak koordinatzea.
- Emaitzak kontrolatu eta neurtzea. Emaitzok ebaluatu eta aztertzea, eta ondorioak ateratzea.
- Talde bat eratzea, helburuak elkarrekin partekatuz, eraginkortasuna eta kohesioa bultzatuz, kooperazioa eta interdependentziari bide emanez eta parte-hartzea erraztuz.
- Informatzea, jakinaraztea eta besteei entzutea.
- Pertsonak eta taldeak trebatzea. Eman beharreko zerbitzurako beharrezkoak dituzten ezagutza eta trebetasunak eskuratzen laguntzea.
- Motibatzea, pertsonak helburu erkideetarantz mugiaraztea.
- Pertsonak eta taldeak ebaluatzea.
- Emaitzak lortzea, aurreikusitako helburuak lortzea.
- Erakundearen balioak kudeatzea eta haren kultura garatzea.

10. artikulua

Zazpigarren artikuluan jasotzen diren zuzendaritza eta aginteko kideek ondoren zerrendatzen diren eskumenak dituzte, nork bere nagusi hurrenaren mende jardunez zuzenean, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei izendatutako eginkizunak eta GUFEn estatutuek eta Gobernu Batzordeak emaniko arauak osatzen duten esparruaren barruan.

A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:

- a. Nork bere ardurapean duen esparrua zuzendu eta kudeatzea.
- b. Nork bere eskumeneko esparruaren antolamendu orokorra, plangintza eta irizpide orokorrak proposatzea.
- c. Nork bere ardurapean dituen unitate administratiboen araubideari dagozkion gauza guztiez xedatzea, hargatik eragotzi gabe beste organo batzuei izendaturiko eskumenak.

B. Antolatze-lanari dagokionez, zuzendaritza eta aginteko kide bakoitzari dagozkion berariazko eskumenak.

C. Zerbitzuari dagokionez, zuzendaritza eta aginteko kide bakoitzari dagozkion berariazko eginkizunak.

D. Langileen arloari dagokionez:

- a. Beren ardurapeko esparruan jarduten duten pertsonak zuzentzea eta kontrolatzea eta haiei agintzea.



- b. Beren ardurapeko langileen ordutegiak eta egutegiak proposatzea.
- E. Baliabideei dagokienez, zuzendaritza eta aginteko kide bakoitzari dagozkion berariazko eginkizunak.
- F. Arauei dagokienez, xedapenak administratiboak ematea, zuzendaritza eta aginteko kide bakoitzaren berariazko eskumenetan jasotzen denaren arabera. Honako xedapen hauek eman ahalko dituzte:
 - a. Ebazpena: izaera orokorreko xedapena da, eta haren aplikazio-eremua GUFEn zentro eta zerbitzu guztiak dira. Ebazpenen gaineko eskumen formala Presidentetzari, Presidenteordetzari edo Gerentziari dagokie, GUFEn estatutuen esparruaren barruan.
 - b. Jarraibide orokorra: irizpide orokorreari buruzko antolakuntza-araua da, GUFEn guztiak nahiz haren parte batek bete beharrekoa; Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari nahiz Zerbitzu Orokorrenari dagokie halakoak prestatzeko eskumena, nori bere esparruan, bai eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari ere.
 - c. Zerbitzu-jarraibidea: lan-prozedurei buruzko irizpideak ezartzen dituen antolakuntza-araua da, GUFEn guztiak nahiz haren parte batek bete beharrekoa, eta halakoak prestatzeko eskumena Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari, Zerbitzu Orokorrenari eta Giza Baliabideen Zuzendariordetzari dagokie, nori bere esparruan.
 - d. Zirkularra: antolakuntza-araua da, arloetako burutzek edo zentroetako zuzendaritzek eman dezaketena, haien jarduera-eremuari soilik dagokionez.
 - e. Zerbitzu-agindua: agindu zehatz bat da, zeregin jakin batzuk antolatu, egin eta/edo, hala dagokionean, ez egiteko, eta zuzendaritzako nahiz aginteko edozein kidek eman dezake, beren arlo funtzionalean.
- G. Nork bere ardurapeko gaitan, egoki deritzon zeinahi ekintza proposatzea bere nagusi hurrenari, ekintzok izapidetzea haren eskumeneko arloari dagokionean.
- H. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

11. artikulua

Era berean, 7. artikuluan jasotzen diren zuzendaritza eta aginteko kideei honako erantzukizun hauek dagozkie:

- A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:
 - a. GUFEn estrategia betearaztea, nork bere erantzukizunaren esparruan.
 - b. Beren eskumeneko esparruaren antolamendua, plangintza eta irizpide orokorrak betearaztea.
 - c. Bermatzea betetzen direla haien ardurapeko esparruan ezarritako helburuak.



- B. Antolatze-lanari dagokionez, lider izatea haien ardurapeko esparruan prozesuen eta helburuen araberako kudeaketa ezartzen, eta kudeaketa hori benetan ezartzen dela bermatzea.
- C. Zerbitzuari dagokionez:
 - a. Lider izatea haien ardurapean jarri dituzten zerbitzuak modu eraginkorren ematen, GUFEn politika eta estrategia gauzatzeko ezarri diren kalitate-parametroen arabera.
 - b. Lider izatea haien esparrua GUFEn zerbitzuetako erabiltzaileen bizi-kalitatea sustatzera bideratzeko.
 - c. Nork bere ardurapeko esparruan, erabiltzaileen eta profesionalen eskubideak eta betebeharrak betetzen direla zaintzea.
- D. Langileen arloari dagokionez:
 - a. Beren ardurapeko esparruan dauden langileen gaitasun profesionala zaintzea.
 - b. Beren ardurapeko pertsonengan eta taldeetan GUFEn balioak gauzatzea.
 - c. Beren ardurapeko esparruan dauden talde eta pertsonen artean, talde-lana, motibazioa eta aitortza sustatu eta betearaztea.
- E. Baliabideei dagokionez:
 - a. Beren ardurapean dituzten aurrekontuetako programen gastuak eta diru-sarrerak betearaztea, kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.
 - b. Beren ardurapeko esparruak dituen baliabide ekonomikoak, materialak eta teknologikoak kontrolatzea, jarduerak eraginkortasunez garatzen direla bermatzeko.
 - c. Nork bere gain hartzea ardurapean duen esparruan gordetzen diren espediente eta agirien zaintza eta artxibatzearen ardura.
- F. Arauei dagokienez:
 - a. Goragoko esparruetan emandako xedapenak betearaztea.
 - b. Beren eskumeneko esparruan ematen diren administrazio-xedapenak betetzen direla kontrolatzea eta horren jarraipena egitea.
- G. Goragoko esparruetara bidaltzen diren gaiak gainbegiratzea eta aztertzea.
- H. Goragoko esparruetakoek egoki irizten dieten gaitetan, aholkua eta laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.
- I. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.



12. artikulua

Oro har, zuzendaritza- eta aginte-egiturako postu baten titularra ez badago edo gaixorik badago edo kargua hutsik badago, haren eskumenak eta ardurak beraren nagusi hierarkikoari dagozkio. Hala ere, aukera izango da arloko burutzei eta/edo zentroetako zuzendaritzei dagozkien eskumenak eta erantzukizunak, zirkunstantzialki, haien homologoei esleitzeko.

II. KAPITULUA

ZERBITZU ZENTRALAK

LEHENENGO ATALA

GERENTEA

13. artikulua

GUFEn gerenteak Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen estatutuak aldatzen dituen 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauak ematen dizkion eskudantziak baliatzen ditu, bere eskumeneko gaietan.

14. artikulua

GUFEn gerenteari honako eginkizun hauek dagozkio.

1. GUFEn zuzendu eta administratzea. Horretan, presidentearen eta Gobernu Batzordearen mendean jardungo du, haietako bakoitzaren eskumenen esparruan.
2. Gobernu Batzordeak eta presidenteari ezartzen dituzten ildo estrategikoak eta hartzen dituzten erabakiak betearaztea.
3. GUFEn bilduriko zentro eta zerbitzuen zuzendaritza exekutiboa bere gain izatea eta horren arabera jardutea.
4. GUFEn aurrekontuen aurreproiektua egitea eta Gobernu Batzordeari aurkeztea.
5. GUFEn aurrekontu-ekitaldi bakoitzean zehazten diren mugen barruan, gastuak xedatzea eta ordainketak agintzea, bai eta diru-sarrerak formalizatzea dakarten agiriak baimentzea ere.
6. GUFeko zentroek eta zerbitzuek era guztietako erakunde ofizialekin dituzten harremanak koordinatu eta haiez arduratzea.
7. Aldian behin, presidenteari GUFEn jardunaren berri ematea.
8. Presidenteari eta Gobernu Batzordeari eskuordetzen dizkioten eginkizun guztiak.
9. Era berean, eskumena izango du gainerako organoei beren-beregi eman ez zaizkien eskudantzia eta eskumen guztiak baliatzeko.



BIGARREN ATALA

ZERBITZU-ZUZENDARITZAK

15. artikulua

Laguntza Zerbitzuen eta Zerbitzu Orokorren zuzendariek zuzendaritza- eta aginte-postuak dituzte, zuzenean gerentearen mende. Beste organo batzuei emaniko eskumenak gorabehera, eta GUFEn estatutuen eta Gobernu Batzordeak emaniko arauen esparruan, badituzte honako eskumen hauek ere, 10. artikuluan jasotako eskudantziez gainera:

A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:

- a. GUFEn gerentea ez dagoenean, haren ordezkariak jardutea, gerenteak berak ematen dizkien eginkizun guztietan, edo, bestela, Presidentetzak zein Gobernu Batzordeak ematen dizkietenetan.
- b. Beren eskumeneko programa, zerbitzu eta zentroen helburuak proposatzea.

B. Antolatze-lanari dagokionez, proposamenak egitea, beren eskumeneko programak, zerbitzuak eta zentroak sortu, azkendu edo aldatzeko.

C. Langileen arloari dagokionez, eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari esleituriko eskumen berezia eragotzi gabe:

- a. Hala badagokio, beren ardurapeko zentro eta zerbitzuetan erantzukizun-karguak bete behar dituzten pertsonen kontratazioa proposatzea, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
- b. Beren ardurapeko zentro eta zerbitzuetarako pertsonak kontrata daitezkeen proposatzea, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
- c. Diziplinazko espedienteak abiarazteko proposamena egitea, hala dagokionean.

D. Baliabideei dagokionez:

- a. Beren eskumen-eremuan, aurrekontu-proiektua, memoria ekonomikoa eta jardueren memoria prestatzea, hargatik eragotzi gabe Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzak arlo horretan esleiturik duen eskumena.
- b. Gastuak proposatzea, indarreko araudiaren arabera.
- c. Beren ardurapeko arloan, kontratazio administratiborako espedienteak proposatzea.

E. Beren ardurapeko gaitan, egoki irizten zaizkien ekintza guztiak proposatzea gerenteari, ekintzok izapidetzea haien zuzendaritzari dagokionean.

F. Gerenteak eta goragoko organoek ematen dizkieten eginkizun guztiak, edo indarreko xedapenen bitartez izendatzen zaizkienak.



16. artikulua

Era berean, zerbitzu-zuzendaritzei honako erantzukizun hauek dagozkie, 11. artikuluan ezartzen direnez gainera:

- A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:
 - a. GUFEn estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - b. Beren arloko zentro eta zerbitzuen estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea (zentroko planak eta zeharkako planak), hargatik eragotzi gabe gai horietan Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzak esleiturik duen eskumen partikularra.
 - c. Beren ardurapeko arloei dagozkien ikerketa, garapena eta berrikuntza.
- B. Beren ardurapeko esparrutik goragoko esparruetara bidaltzen diren gaiak gainbegiratu eta aztertzea.
- C. Goragoko esparruetakoek egoki irizten dieten gaietan, aholkua eta laguntza teknikoa eta administratiboa ematea.
- D. Gerenteak eta goragoko organoek ematen dizkieten eginkizun guztiak, edo indarreko xedapenen bitartez izendaturikoak.

HIRUGARREN ATALA

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIORDETZA

17. artikulua

Giza Baliabideen zuzendariordeak zuzendaritza- eta aginte-postua du, zuzenean Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren mende. Beste organo batzuei emaniko eskumenak gorabehera, eta GUFEn estatutuen eta Gobernu Batzordeak emaniko arauen esparruan, honako eskumen hauek dituzte, 10. artikuluan jasotako eskudantziez gainera:

- A. Antolatze-lanari dagokionez, proposamenak egitea Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari, bere eskumeneko programa, zerbitzu nahiz zentroak sortzeko, azkentzeko edo aldatzeko.
- B. Langileen arloari dagokionez:
 - a. Hala badagokio, Zuzendaritzari proposatzea bere eskumen-eremuan erantzukizun-karguak bete behar dituzten pertsonak kontrata ditzala, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
 - b. Bere eskumeneko arloetan pertsonen kontratazioa proposatzea, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
- C. Baliabideei dagokionez:
 - a. Gastuak proposatzea, indarreko araudiaren arabera.
 - b. Beren ardurapeko arloan, kontratazio administratiborako espedienteak proposatzea.



- D. Bere ardurapeko gaietan, egoki irizten zaizkion ekintza guztiak proposatzea Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari, ekintzok izapidetzea berari dagokionean.
- E. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

18. artikulua

Era berean, Giza Baliabideen zuzendariordeari honako erantzukizun hauek dagozkio, 11. artikuluan ezartzen direnez gainera:

- A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:
 - a. GUFEn estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - b. Bere ardurapeko arloen estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - c. Ikerkuntzari, garapenari eta berrikuntzari dagokienez, lider izatea bere jarduketa-esparruan.
- B. Goragoko esparruetara bidaltzen diren gaiak gainbegiratzea eta aztertzea.
- C. Aholkua eta laguntza teknikoa eta administratiboa ematea goragoko esparruei, egoki irizten zaien gaietan.
- D. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

LAUGARREN ATALA

ARLOETAKO BURUTZAK

19. artikulua

Arlo bateko buruak zuzendaritza- eta aginte-postua du, kasuan kasuko zuzendariordetzaren edo zerbitzu-zuzendaritzaren mende zuzenean. Beste organo batzuei emaniko eskumenak gorabehera, eta GUFEn estatutuen eta Gobernu Batzordeak emaniko arauen esparruan, honako eskumen hauek dituzte, 10. artikuluan jasotako eskudantziez gainera:

- A. Antolatze-lanari dagokionez, proposamenak egitea bere eskumeneko programak, zerbitzuak nahiz unitateak sortzeko, azkentzeko edo aldatzeko.
- B. Langileen arloari dagokionez, beren mendeko langileen ordezkapenak proposatzea, GUFek arlo horretan hartu dituen erabakien arabera.
- C. Baliabideei dagokionez:
 - a. Gastuak proposatzea, indarreko araudiaren arabera.
 - b. Beren ardurapeko arloan, kontratazio administratiborako espedienteak proposatzea.
- D. Berak izapidetu beharreko gaietan, egoki irizten zaizkion ekintza guztiak proposatzea.



- E. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

20. artikulua

Era berean, arlo bateko buruari honako erantzukizun hauek dagozkie, 11. artikuluan ezartzen direnez gainera:

- A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:
 - a. GUFEn estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - b. Bere zuzendariordetzaren nahiz zuzendaritzaren estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - c. Bere arloaren estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - d. Bere ardurapeko arloan, ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea.
- B. Langileen arloari dagokionez, diziplina-erantzukia egiteko modukoak izan daitezkeen egitateen gaineko txostena egitea.
- C. Baliabideei dagokienez, aurrekontuko beharrei buruzko txostena egitea.
- D. Goragoko instantzietara bidaltzen diren gaiak gainbegiratu eta gaiok aztertzea, bere ardurapeko esparruan.
- E. Aholkua eta laguntza teknikoa eta administratiboa ematea goragoko esparruei, egoki irizten zaien gaitan.
- F. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.



III. KAPITULUA
ZERBITZU DESZENTRALIZATUAK
LEHENENGO ATALA
ZENTROETAKO ZUZENDARITZAK

21. artikulua

Zentroko zuzendariak zuzendaritza- eta aginte-postua du, zuzenean Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzaren mende. Beste organo batzuei emaniko eskumenak gorabehera, eta GUFEn estatutuen eta Gobernu Batzordeak emaniko arauen esparruan, honako eskumen hauek dituzte, 10. artikuluan jasotako eskudantziez gainera:

- A. Antolatze-lanari dagokionez, proposamenak egitea, bere eskumeneko programak edo zerbitzuak sortu, azkendu edo aldatzeko.
- B. Langileen arloari dagokionez:
 - a. Bere ardurapeko zentroan erantzukizun-karguak bete behar dituzten pertsonen kontratazioa proposatzea, posible denean, aplikatzekoa den araudiaren arabera.
 - b. Bere ardurapeko zentrorako gainerako langileen kontratazioa proposatzea, aplikatu beharreko araudiaren arabera.
 - c. Diziplinazko espedienteak abiarazteko proposamena egitea, hala dagokionean.
- C. Baliabideei dagokionez:
 - a. Gastuak proposatzea, indarreko araudiaren arabera.
 - b. Beren ardurapeko arloan, kontratazio administratiborako espedienteak proposatzea.
- D. Berak izapidetu beharreko gaietan, egoki irizten zaizkion ekintza guztiak proposatzea.
- E. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

22. artikulua

Era berean, zentroko zuzendariari honako erantzukizun hauek dagozkio, 11. artikuluan ezartzen direnez gainera:

- A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:
 - a. GUFEn estrategia definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - b. Bere zentroaren estrategia (zentroaren plana) definitzen eta berrikusten parte hartzea.
 - c. Ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea bere ardurapeko zentroan.



- B. Baliabideei dagokienez, aurrekontuko beharrei buruzko txostena egitea.
- C. Bere jarduera-eremutik goragoko instantzietara bidaltzen diren gaiak gainbegiratu eta gaiok aztertzea.
- D. Aholkua eta laguntza tekniko eta administratiboa ematea goragoko esparruei, eskatzen zaion gai guztietan.
- E. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

BIGARREN ATALA

BITARTEKO AGINTEDUNAK

23. artikulua

Bitarteko agintedunak dira langileak kudeatu behar dituzten lanpostuak dituztenak. GUFeko zentroek beren neurriaren arabera izaten dituzte bitarteko agintedunak, eta honako hauek dira halakoen egitura eta hierarkia:

- ◆ Gainbegiralea, zentroko zuzendaritzaren mende.
- ◆ Gelazainburua, zentroko zuzendaritzaren mende.
 - Gelazainburuordea, gelazainburuaren mende.
- ◆ Sukaldeko burua, zentroko zuzendaritzaren mende.
- ◆ Zerbitzu teknikoen burua, zentroko zuzendaritzaren mende.

Goiko lanpostuetariko bat ez dagoen zentroetan, 12. artikulua aplikatuko da.

24. artikulua

Zentroetako bitarteko agintedunek kasuan kasuko zentroko zuzendariaren edo arduradunaren mende jarduten dute zuzenean beren lanpostuan. Beste organo batzuei emaniko eskumenak gorabehera, eta GUFEn estatutuen eta Gobernu Batzordeak emaniko arauen esparruan, honako eskumen hauek dituzte, 10. artikuluan jasotako eskudantziez gainera:

- A. Antolatze-lanari dagokionez, proposamenak egitea Zentroko Zuzendaritzari, beren eskumeneko programak edo zerbitzuak sortzeko, azkentzeko edo aldatzeko.
- B. Langileen arloari dagokionez, beren mendeko langileen ordezkapenak proposatzea, GUFek arlo horretan hartu dituen erabakien arabera.
- C. Beren ardurapeko gaietan, egoki irizten zaizkien ekintza guztiak proposatzea Zentroko Zuzendaritzari, ekintzok izapidetzea haiei dagokionean.



D. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.

25. artikulua

Era berean, zentroetako bitarteko agintedunei honako erantzukizun hauek dagozkie, 11. artikuluan ezartzen direnez gainera:

A. Zuzendaritza-lanei dagokienez:

- a. Zentroaren estrategia (zentroaren plana) definitzen eta berrikusten parte hartzea.
- b. Beren eremuko ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea eta hartan parte hartzea.

B. Langileen arloari dagokionez:

- a. Zereginak laneko prozedura eta protokoloen arabera gauzatzen direla ikuskatzea.
- b. Beren ardurapeko langileen mugikortasuna xedatzea eta baimentzea, horretarako arrazoiak emanez.
- c. Diziplina-erantzukia egiteko modukoak izan daitezkeen egitateen gaineko txostena egitea.

C. Baliabideei dagokionez:

- a. Aurrekontuko beharrei buruzko txostena egitea.
- b. Beren ardurapeko baliabideak modu eraginkorrean kontrolatzea.

D. Beren esparrutik goragoko instantzietara bidaltzen diren gaiak gainbegiratzea eta aztertzea.

E. Aholkua eta laguntza teknikoa eta administratiboa ematea goragoko esparruei, egoki irizten zaien gaietan.

F. Nagusiek ematen dizkieten eginkizun guztiak nahiz indarrean diren xedapenen bitartez esleitzen zaizkienak.



HIRUGARREN TITULUA
ZERBITZUEN EGITURA ETA MISIOA

I. KAPITULUA
ZERBITZUEN EGITURA

26. artikulua

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea zerbitzu zentraletan eta zerbitzu deszentralizatueta egituratzen da. Honela:

LEHENENGO ATALA
ZERBITZU ZENTRALAK

27. artikulua

GUFEn zerbitzu zentralak, eta zerbitzu deszentralizatuentzat ezartzen diren mendekotasunak, honela egituratzen dira:

1. Gerentzia
 - 1.1. Gerentziaren Idazkaritza
 - 1.2. Lege Aholkularitza
 - 1.3. Bulego Teknikoa
 - 1.4. Antolaketa eta Hobekuntza
2. Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritza
 - 2.1. Laguntza Zerbitzuen Arlo Teknikoa
 - 2.2. Egoitza Harreraren Unitatea
3. Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza
 - 3.1. Giza Baliabideen Zuzendariordetza
 - 3.1.1. Aukeraketa eta Hornikuntza Arloa
 - 3.1.2. Kudeaketa Administratiboaren Arloa
 - 3.1.3. Trebakuntza, Euskara eta Berdintasun Arloa
 - 3.1.4. Lan Arriskuen Prebentziorako Arloa
 - 3.1.5. Nominen eta Gizarte Aseguruen Arloa
 - 3.2. Kontratazio eta Ondare Arloa
 - 3.3. Ekonomia eta Aurrekontu Arloa



BIGARREN ATALA

ZERBITZU DESZENTRALIZATUAK

28. artikulua

Zerbitzu deszentralizatuetakoko zentroak, oro har, erabiltzaile-motaren, zentroaren neurriaren eta profesionalen ezaugarrien arabera, honela egituratzen dira funtzionalki:

1. Zentroaren Zuzendaritza.

1.1. Laguntza Arloa.

1.1.1. Osasuna Zaintzeko eta Mendekotasuna Arintzeko zerbitzuak, zeinetan sartzen baitira osasun-atentzioa eta autonomia pertsonalari laguntzeko atentzioa.

1.1.2. Zerbitzu psikosozialak, zeinetan sartzen baitira atentzio psikologikoa, gizarte-langileena, terapia okupazionala, eta aisia eta astialdiko atentzioa.

1.2. Administrazioaren eta Zerbitzuen Arloa.

1.2.1. Zerbitzu Administratiboak.

1.2.2. Zerbitzu Orokorrak, zeinetan sartzen baitira garbiketa, ikuztegi zerbitzua, sukaldaritza, herritarrei laguntzeko zerbitzua, zerbitzu teknikoak eta mantentze-lanak.

Egiturak horrek -funtzionala izanik- ez du behar erantzukizun-lanposturik arlo bakoitzaren titularrak zein den adierazteko.

29. artikulua

Ume eta nerabeentzako zerbitzu deszentralizatuen zentroak bizikidetza-etxe modura taxutzen dira, eta Egoitza Harreraren Zuzendaritzaren mende daude.

II. KAPITULUA

GERENTZIAREN MISIOA

30. artikulua

Gerentziaren misioa da GUFEn kudeatzea honako zeregin hauetan: programa zehatzak gauzatzeko; zerbitzu publikoak sustatu, lagundu edo kudeatzeko jardueretan; bere eskumeneko jardura arloetan eta esparruetan, eta Bizkaiko Lurralde Historikoko organoek ematen dizkieten eginkizunetan.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a. Gizarte Ekintza Sailak planteaturiko beharrian sozialei erantzutea.



- b. Gizarte Ekintza Sailarekin harturiko konpromisoak betetzen eraginkorrak eta efizienteak izatea.
- c. GUFERentzat ezarritako ildo estrategikoak gauzatzea.
- d. Gizarte-zentro eta -zerbitzu espezializatuak, berritzaileak eta kalitatezkoak izatea.
- e. Atentzio-eredu aurreratuak, eraginkorrak eta berritzaileak izatea, komunitatean integratuak, eta erabiltzaileen bizi-kalitatea ikuspegi integral eta pertsonalizatu batetik sustatzen dutenak.
- f. Eman beharreko zerbitzurako gaitasun handia duten langileak izatea.
- g. Eman behar den zerbitzurako beharrezko diren baliabide ekonomiko, material eta teknologikoak izatea.
- h. Zerbitzuaren kalitatea bermatuko duen kudeaketa-sistema bat izatea.
- i. Erakundeari balioa emango dioten itunak egitea.
- j. Eskumena duten organoek ezar dezaketen beste helburu oro.

LEHENENGO ATALA

LEGE AHOLKULARITZA

31. artikulua

Lege Aholkularitzaren misioa da, legelari aholkulariaren ardurapean, GUFERen kontsulta- eta aholku-organo orokor gisa jardutea zuzenbidearen arloan.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Legeen arloko aholkularitza ematea, ahoz eta idatziz, GUFeko organo, zuzendaritza eta zentro guztiei.
- b) Zuzenbidearen araberako txostenak ematea, bai indarreko arauak beren-beregi hala egin behar dela xedatzen duten gaietan, bai Gerentziak eskatu edo egoki ikusten duen gainerako kasuetan ere.
- c) Izaera juridikoa duten irizpenak eta ebazpen-proposamenak egitea.
- d) GUFeko arloen eta zentroen irizpide juridikoak bateratzea.
- e) GUFERen Gobernu Batzordeak erabaki behar dituen gaiak prestatu, kudeatu eta haiei buruzko txostenak prestatzea.
- f) GUFERen presidentearen, presidenteordearen eta gerentearen eskumeneko espedienteak eta ebazpen-proposamenak aztertu eta funtساتzea.
- g) GUFEk arautzeko duen ahalmenak erabiltzean ematen dituen xedapenen legezotasunaz barneko kontrola egitea.



- h) GUFeko zuzendaritzek izapideturiko administrazio-errekurtoetan eta ondare erantzukizunari buruzko espedienteetan, ebazpen-proposamenetarako txostenak prestatzea.
- i) Justizia auzitegien aurrean, haien instantzia guztietan, GUFeren zuzendaritza juridikoaz arduratzea, hargatik eragotzi gabe abokatu eta auzitegietako prokuradoreen zerbitzuak baliatzea, hala xedatzen denean.
- j) Espedienteak funtsatzea honako kasu hauetan: partikularrek jarritako demandei amore emateko, Administrazioak sustatutako ekintza eta errekurtoei uko egiteko, eta errekurtoa jarri zaien egintza eta xedapenen eragina eteteko.
- k) Era guztietako ekintzei (judizialei eta epaiz kanpokoei) dagozkien erabakiak eta ebazpenak hartzeko proposamenak izapidetzea, auzibidean pertsonatzeko: auzi zibiletan, auzi kriminaletan, administrazioarekiko auzietan eta lan-arlokoetan.
- l) Datu pertsonalen babesari buruzko lege-eskakizunak bermatu eta betetzea.
- m) GUFeren eskubide eta interesen defentsa juridikoaz arduratzea beste administrazio publiko batzuetako organoen aurrean.
- n) Agindu dakioken guztia.

BIGARREN ATALA

BULEGO TEKNIKOAREN ARLOA

32. artikulua

Bulego Teknikoaren Arloaren misioa da GUFeren azpiegiturak, ekipamenduak, ondasunak eta baliabide teknologikoak kudeatzea, erakundeak eman behar duen zerbitzurako egoki diren baliabideak izan ditzan.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Zerbitzu zentralen eta erakundearen gainerako eraikinen intendentzia nagusia.
- b) Zerbitzua emateko behar dituen higiezin hornitza erakundea.
- c) Erakundearen eraikinak eta instalazioak zaindu, mantendu eta konpontzeko lanak kudeatzea.
- d) GUFeren zerbitzuak normal eta egoki garatzeko behar diren baliabideak, ondasunak eta tresnak homologatu, bateratu eta hornitza erakundearen eraikinetan.
- e) GUFeren zentro eta zerbitzuetako baliabideak, ondasunak eta tresnak zaindu, mantendu eta konpontzeko lanak ikuskatzea eta haietan laguntzea.
- f) Zerbitzua emateko behar diren IKTBak inplementatu eta kudeatzea.
- g) Ingurumen-kudeaketa ezartzea eta bultzatzea erakundearen zentroetan eta zerbitzuetan.
- h) Agindu dakioken guztia.



HIRUGARREN ATALA

ANTOLAKETA ETA HOBEKUNTZARAKO ARLOA

33. artikulua

Antolaketa eta Hobekuntzarako Arloaren misioa da erabiltzaileen eskubideak bermatzen direla zaintzea, eta kudeaketa-metodologia bat ematea erakundeari bere zerbitzuaren balioa eta kalitatea handituko duena.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Metodologia egokia xedatu, ezarri eta bultzatzea, GUFEn politika eta estrategia prestatu, zabaldu, ebaluatu eta berrikusteko.
- b) Erakundearen politika eta estrategia gauzatzeko bidean, metodologia egokia xedatu, ezarri eta bultzatzea, GUFEn lan-sistemak prestatu, zabaldu, ebaluatu eta berrikusteko.
- c) Ziurtatzea lan-sistemek bermatzen dutela GUFEn laguntza-zerbitzuen erabiltzaileen eta bertako profesionalen eskubideak eta betebeharrak benetan betetzen direla.
- d) GUFEn politika eta estrategia gauzatzeko egoki izango den antolakuntza-egitura aztertu eta prestatzea.
- e) Etengabeko hobekuntzarako egokia den metodologia xedatu, ezarri eta bultzatzea.
- f) GUFEn beharretarako egoki diren komunikazio-kanalak xedatu, ezarri eta bultzatzea.
- g) GUFEn zentro eta zerbitzuetako erabiltzaileen eskubideak benetan betetzeko neurriak xedatu, ezarri eta bultzatzea.
- h) Erabiltzaileen iradokizunak, kexak eta erreklamazioak kudeatzea, modu independentean eta objektiboan.
- i) Jarduera publikoaren gardentasunari eta informazioa eskuratzeko eskubideari buruzko exijentziak betetzea.
- j) Agindu dakioken guztia.

III. KAPITULUA

LAGUNTZA ZERBITZUEN ZUZENDARITZAREN MISIOA

34. artikulua

Gizarte Ekintza Sailak bere ardurapean jartzen dituen pertsonen beharrian sozialak asetzea da Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzaren misioa, eta, horretarako, bere ardurapeko zentroak eta zerbitzuak kudeatu behar ditu.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:



- a. Gizarte Ekintza Sailak planteaturiko beharrian sozialei erantzutea.
- b. Gizarte Ekintza Sailarekin harturiko konpromisoak betetzen eraginkorrak eta efizienteak izatea.
- c. Gizarte-zentro eta -zerbitzu espezializatuak, berritzaileak eta kalitatezkoak izatea.
- d. Atentzio-eredu aurreratuak, eraginkorrak eta berritzaileak izatea, erabiltzaileen bizikalitatea sustatuko dutenak ikuspegi integral eta pertsonalizatu batetik eta komunitatean integraturik.
- e. Erabiltzaile bakoitzari kontu egitea, ezarria duen banakako laguntza-planaren arabera.
- f. GUFeko asistentzia-zentroek eta -zerbitzuek erabiltzaileen asetasuna sustatzen dutela bermatzea, bai eta, hala dagokionean, haien familia edo/eta legezko ordezkariena ere.
- g. Ezaguera sortu eta partekatu dadila erraztea, ikerketa eta foro espezializatuetakoko parte-hartzea bultzatuz.
- h. Eskumena duten organoek ezar dezaketen beste helburu oro.
- i. Zerbitzuei dagozkien gaitan ikertzea, gaiok garatzea eta berrikuntza bilatzea.
- j. Zentroetan ematen den laguntzarako erraztasun teknikoak ematea, zentroetako zuzendaritzek asistentziaren helburuak lor ditzaten bultzatuz.
- k. Zentroek eta zerbitzuek erabiltzaileen asetasuna sustatzen dutela bermatzea, bai eta, hala dagokionean, haien familia edo/eta legezko ordezkariena ere.
- l. Zentroen trebakuntza-beharrak eta -helburuak planifikatzen laguntzea.
- m. Eskumena duten organoek ezar dezaketen beste helburu oro.

LEHENENGO ATALA

LAGUNTZA ZERBITZUEN ARLO TEKNIKOA

35. artikulua

Laguntza Zentroen Arlo Teknikoaren misioa zera da:

- Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzari kualifikazio handiko laguntza teknikoa ematea, haren eskumeneko esparrua eraginkortasunez kudeatzeko beharrezkoa.
- Laguntza ematea zuzendaritzako zentroi eta zerbitzuei, zentro-zerbitzuok modua izan dezaten Gizarte Ekintza Sailak euren ardurapean jartzen dituen pertsonen beharrian sozialak asetzeko.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFeko zentro eta zerbitzuen atentzio-ereduak definitu eta kontrolatzea.



- b) Ikuskatzea zentro eta zerbitzuetan kontu egiten zaien pertsona guztiek dutela nor bere arreta-plana, eta plan horiek egokiro gauzatu, ebaluatu eta berrikusten direla.
- c) Zerbitzuei dagozkien gaietan ikertzea, gaiok garatzea eta berrikuntza bilatzea.
- d) Zentroetan ematen den laguntzarako erraztasun teknikoak ematea, zentroetako zuzendaritzari asistentziaren helburuak lortzen lagunduz.
- e) Zentroek eta zerbitzuek erabiltzaileen aletasuna sustatzen dutela bermatzea, bai eta, hala dagokionean, haien familia edo/eta legezko ordezkariarena ere.
- f) Zentroen trebakuntza-beharrak eta -helburuak planifikatzen laguntzea.
- g) Eskumena duten organoek ezar dezaketen beste helburu oro.

BIGARREN ATALA

EGOITZA HARRERAREN UNITATEA

36. artikulua

Egoitza Harreraren Unitatea GUFEn egitura organikoaren barruan kokatzen da, baina, funtzionalki, Gizarte Ekintza Sailaren Umeen Zerbitzuaren mende dago. Unitate horren misioa da umeentzako eta gazteentzako egoitza-harreraren zerbitzua ematea, Bizkaiko egoitzen sare guztian.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a. Bere eskumenen esparruan, Gizarte Ekintza Sailak planteatzen dizkion behar sozialei erantzutea.
- b. Gizarte Ekintza Sailarekin harturiko konpromisoak betetzen eraginkorrak eta efizienteak izatea.
- c. Bermatzea egoitza-harreraren barruan dauden adin txikikoek haien kasuari dagokion plana dutela eta jarraipena eta ebaluazioa egiten zaiela.
- d. Eskumena duten organoek ezar dezaketen beste helburu oro.

HIRUGARREN ATALA

LAGUNTZA ZERBITZUEN ZUZENDARITZAKO ZENTROAK

37. artikulua

Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako zentroen misioa da Gizarte Ekintza Sailak haien ardurapean jartzen dituen pertsonen beharrian sozialak asetzea, eta, horretarako, erabiltzaile-mota bakoitzari egokitutako kalitatezko zerbitzu espezializatuak eman behar dituzte, pertsona horien bizi-kalitatea osorik eta modu integratzailean hobetzen saiatuz.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango dituzte:



- a. Gizarte Ekintza Sailak planteaturiko beharrian sozialei erantzutea.
- b. Eraginkorrak eta efizienteak izatea Bizkaiko Foru Aldundiak egindako zerbitzu-gomendioa betetzen.
- c. Gizarte-zentro eta -zerbitzu espezializatuak, berritzaileak eta kalitatezkoak izatea.
- d. Atentzio-eredu aurreratuak, eraginkorrak eta berritzaileak izatea, eta erabiltzaileen bizikaltatea susta dezatela, ikuspegi integral eta pertsonalizatu batetik.
- e. Ezarria duten atentzio-plan indibidualaren arabera kontu egitea erabiltzaileei.
- f. Erabiltzaileen asetasuna sustatzea.
- g. Erabiltzaileen senideen eta/edo legezko ordezkarien asetasuna sustatzea.
- h. Giza baliabideak, baliabide materialak, teknologikoak eta ekonomikoak eraginkortasunez kudeatzea.
- i. Jakintza sortu eta partekatzea, ikerketa eta foro espezializatuetan parte hartzea bultzatuz.
- j. Eskumena duten organoek ezar dezaketen beste helburu oro.

IV. KAPITULUA

ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZAREN MISIOA

38. artikulua

Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzaren misioa da GUFEn zerbitzua emateko egoki diren baliabideak izan ditzala: giza baliabideak, ekonomikoak, teknologikoak, ondasunak, dokumentazioari dagozkion baliabideak eta artxibategiak.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFEn urteko aurrekontua prestatzea (gero onartua izan dadin), Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzarekin koordinaturik.
- b) Aurrekontuko programetako gastuak eta diru-sarrerak exekutatzeko, eta haien jarraipena eta kontrola egitea.
- c) Kanpoko hornidurak eta zerbitzuak jasotzeko lehiaketa publikoak kudeatzea eta substantziaztea.
- d) GUFEn ezartzen dituen lankidetzaren hitzarmenen eta itunen kudeaketa administratiboaz arduratzea.
- e) GUFEn ondasun-baliabideak kudeatzea.
- f) GUFEn eraikinen zaintzaz, mantentze-lanez eta erabilera egokiaz arduratzea.



- g) Erakundearen zentroak eta zerbitzuak zerbitzua emateko egoki diren baliabide material eta teknologikoez hornitzea.
- h) GUFeko erregistro nagusia kudeatzea.
- i) GUFeko agiritegi nagusia kudeatzea.
- j) Eraginkortasunez eta efizientziaz gauzatzea langileen arloko politika, araubide juridikoari buruzkoa eta ordainsarienei dagokiena, indarreko xedapenen eta araudiaren arabera.
- k) Zerbitzua emateko egoki diren profesionalaz hornitzea GUFEn.
- l) Eraginkortasunez gestionatzea langileen kudeaketari dagozkion zeregin administratiboak: kontratuak, nominak, gizarte segurantza, gizarte onurak, agiritegia eta/edo dokumentuen zaintza.
- m) GUFeko kideen jakintza eta gaitasuna sustatzea, eman beharreko zerbitzurako prestakuntza handia duten profesionalak izateko, gai izango direnak halaber erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko.
- n) Aztertzeke ematen zaizkion diziplina-espedienteak proposatzea eta/edo ebatzea.
- o) Bermatzea laneko segurtasunari eta osasunari buruzko prozesuak, laneko teknikak eta prozedurak, eta ekipamenduak eta instalazioak seguruak direla erakundeko langileentzat.
- p) Agindu dakiokkeen guztia.

LEHENENGO ATALA

GIZA BALIABIDEEN ZUZENDARIORDETZAREN MISIOA

39. artikulua

Giza Baliabideen Zuzendariordetzaren misioa da zerbitzua emateko prestakuntza handia duten langileak ematea GUFEn, langileen arloan ezartzen diren politiken arabera.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Eraginkortasunez eta efizientziaz gauzatzea langileen arloko politika, araubide juridikoari buruzkoa eta ordainsarienei dagokiena, indarreko xedapenen eta araudiaren arabera.
- b) Zerbitzua emateko egoki diren profesionalaz hornitzea GUFEn.
- c) Eraginkortasunez gestionatzea langileen kudeaketari dagozkion zeregin administratiboak: kontratuak, nominak, gizarte segurantza, gizarte onurak nahiz dokumentuak artxibatu eta zaintzea...
- d) Bermatzea GUFeko kideen jakintzak eta gaitasunak aukera ematen diotela erakundeari eman behar duen zerbitzuan prestakuntza handiko profesionalak izateko, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko gai direnak.
- e) Jakinarazten zaizkion diziplina-espedienteak substantziaztea.



- f) Ziurtatzea laneko segurtasunari eta osasunari buruzko prozesuak, laneko teknikak eta prozedurak, eta ekipamenduak eta instalazioak seguruak direla erakundeko langileentzat.
- g) Agindu dakioken guztia.

LEHENENGO AZPIATALA

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOA

40. artikulua

Aukeraketa eta Hornikuntza Arloaren misioa da zerbitzua emateko egoki diren profesionalen hornitzea GUFEn.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFEn langileen hautaketan eta hornikuntzan dituen beharrak asetzea.
- b) Hautatze-prozedurak diseinatu eta eraginkortasunez kudeatzea, eman behar duen zerbitzurako pertsona egokiez hornitzeko GUFEn.
- c) Deialdietarako oinarrien proposamenak egitea, lan-kontratudun langile finkoak eta aldi baterako langileak hautatzeko prozesuak eraentzeko, eta prozesu horiek ekar ditzaketen azpiegiturak eta epaimahaiak kudeatzeko behar diren harremanez arduratzea.
- d) Langileen kontratazioa kudeatzea, erakundearen eta kontratatuko den pertsonaren interesak bateragarri eginez.
- e) Lan-poltsak kudeatzea, haiek arautzen dituzten irizpideen arabera.
- f) Lanpostuen aukeraketaren eta hornikuntzaren arloan, azterketak egitea eta goragoko mailakoei proposamenak egitea.
- g) GUFeko ordezkariak planifikatu, kudeatu eta kontrolatzea, lan hori zentroekin koordinatuta.
- h) Lanpostuen aukeraketaren eta hornikuntzaren arloan, hainbat jardura: programazioa, kontrola eta ikuskaritza.
- i) Agindu dakioken guztia.

BIGARREN AZPIATALA

KUDEAKETA ADMINISTRATIBOAREN ARLOA

41. artikulua

Kudeaketa Administrazioaren Arloaren misioa da langileen kudeaketarekin zerikusia duten prozedurak kudeatzea.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:



- a) Langileen lizentzien eta baimenen izapidetzea substantziatea, dagokion proposamena formalizatu arte.
- b) Ordutegi-kontrolaren gestio administratiboa egitea: egoera administratiboak eta lanekoak, ordutegiak, baimenak, lizentziak, oporrak eta bestelako gorabeherak.
- c) Laneko egutegien eta taulen kudeaketa administratiboa egitea.
- d) Langileen artxiboaren kudeaketa administratiboa egitea.
- e) Lanpostuen eginkizunen eskuliburua prestatzea.
- f) Lanpostu-zerrenda aztertu eta prestatzea, bai eta haren eguneraketak eta/edo aldaketak ere.
- g) Plazak eta lanpostuak sortu eta/edo amortizatzeko espedienteak substantziatea.
- h) GUFeko plantillari eta lanpostu-zerrendari buruzko lege- eta/edo ekonomia-txostenak egitea.
- i) Agindu dakioken guztia.

HIRUGARREN AZPIATALA

NOMINEN ETA GIZARTE ASEGURUEN ARLOA

42. artikulua

Nominen eta Gizarte Aseguruen Arloaren misioa da erakundeko langileen nominarekin eta gizarte-aseguruekin lotutako administrazio-prozedurak kudeatzea.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) Kontratatutako langileen gizarte-segurantzari dagokion kudeaketa administratiboa egitea.
- b) Kontratatutako langileen nominen kudeaketa administratiboa egitea.
- c) Kontratatutako langileen aparteko zeinahi ordainketa edo osagarriren kudeaketa administratiboa egitea.
- d) Kasuan kasuko erregelamenduan ezarritako laguntzen eta aurrerakinen kudeaketa administratiboa egitea.
- e) Agindu dakioken guztia.



LAUGARREN AZPIATALA

TREBAKUNTZA, EUSKARA ETA BERDINTASUN ARLOA

43. artikulua

Trebakuntza, Euskara eta Berdintasun Arloaren misioa da bermatzea GUFeko kideen jakintzak eta gaitasunak aukera ematen diola erakundeari eman behar duen zerbitzuan prestakuntza handiko profesionalak izateko, erabiltzaileen hizkuntza-eskubideak bermatzeko gai direnak.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFEn trebakuntza-planak prestatu, ezarri eta ebaluatzea.
- b) Planez kanpoko trebakuntza gestionatzea.
- c) Gaitasunetan oinarritutako kudeaketa planifikatu, gestionatu eta kontrolatzea.
- d) GUFEn euskalduntze-planak prestatu, ezarri eta ebaluatzea.
- e) GUFEn hizkuntza ofizialak nola erabiltzen diren kontrolatzea eta haien erabilera bultzatzea.
- f) Trebakuntzaren eta euskararen arloan, gestioak, azterketak eta proposamenak egitea.
- g) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko lege-eskakizunak bultzatzea.
- h) Agindu dakioken guztia.

BOSGARREN AZPIATALA

LAN ARRISKUEN PREBENTZIORAKO ARLOA

44. artikulua

Lan Arriskuen Prebentziorako Arloaren misioa da bermatzea seguruak direla GUFeko langileentzat bai laneko segurtasunari eta osasunari buruzko prozesuak, bai laneko teknikak eta prozedurak eta bai ekipamenduak eta instalazioak ere.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFeko langileen osasuna zaintzea, sustatzea, gordetzea eta hobetzea, haien laneko arrisku generikoen eta berariazkoen aurrean.
- b) Lanpostu guztien arriskuen azterketa egitea eta garatzea, eta lanpostuon osasun- eta segurtasun-baldintzak ezartzea.
- c) Prebentzio-ekintzen programak eta planak ezarri, kontrolatu eta ebaluatzea.
- d) Larrialdi- eta ebakuazio-planen jarraipena egitea.



- e) GUFeko langileei beren lanpostuen arrisku-baldintzei buruzko trebakuntza eta informazioa ematea.
- f) Langileak eta lanpostuak ondo egokitzen direla zaintzea, eta, lanean moldatu ezina edo jarduteko ezintasuna gertatzen den zainahi kasutan, orientazioa ematea eta kasuok bideratzea.
- g) Laneko osasunaren eta segurtasunaren arloan eskumena duten erakunde eta organismoekiko harremanez eta koordinazioaz arduratzea.
- h) Agindu dakioken guztia.

BIGARREN ATALA KONTRATAZIO ETA ONDARE ARLOA

45. artikulua

Kontratazio eta Ondare Arloak honako hauek kudeatzea du misio:

- ondare-baliabideak, haien dokumentazioa eta agiritegia.
- GUFeko erregistro nagusia.
- erakundeak egiten dituen erosketak, kontratuak eta hitzarmenak.
- Zerbitzu Zentralei laguntzeko zerbitzuak.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFEn ondasun-baliabideak kudeatzea.
- b) Erregistro orokorra kudeatzea.
- c) Agiritegi nagusia kudeatzea.
- d) Kanpoko hornidura eta zerbitzuak jasotzeko lehiaketa publikoak kudeatzea.
- e) GUFek ezartzen dituen lankidetzak-hitzarmenak eta -itunen kudeaketaz arduratzea.
- f) Zerbitzu Zentralei laguntzeko zerbitzuak administratzea: jendearentzako arreta, instalazioen mantentze-lanak, dokumentuen erreprografia eta erreproduktzioa, posta-bulegoa eta antzekoak.
- g) Agindu dakioken guztia.



HIRUGARREN ATALA

EKONOMIA ETA AURREKONTU ARLOA

46. artikulua

Ekonomia eta Aurrekontu Arloaren misioa da GUFEn baliabide ekonomikoak kudeatzea, horrela erakundeak izan ditzan eman behar duen zerbitzurako egoki diren baliabideak.

Hori dela eta, honako helburu hauek izango ditu:

- a) GUFEn urteko aurrekontua prestatzea (gero onartua izan dadin), Laguntza Zerbitzuen Zuzendaritzako arduradunekin koordinaturik.
- b) Baliabideak eraginkortasunez eta efizientziaz erabiltzeko behar diren plangintzako, kontroleko eta kudeaketa ekonomikoko sistemak ezartzea.
- c) Aurreko ataletan xedatutakoaren jarraipena eta kontrola.
- d) Txosten ekonomikoak egitea.
- e) Gastuen eta diru-sarreraren espedienteen barne-fiskalizazioa gauzatzea.
- f) Fakturak eta espediente ekonomikoak ikuskatu eta kontrolatzea.
- g) Prezio publikoak, tasak eta bestelako diru-sarrerak aztertu, izapidetu eta kontrolatzea.
- h) Agindu dakioken guztia.

Lehen xedapen gehigarria.- Batzorde teknikoak

GUFEn barruan, batzorde teknikoak sortu ahalko dira, azterketak, gogoeta, txostenak eta, hala behar denean, proposamenak egiteko erakundearen eskumeneko diren asistentziari edo administrazioari buruzko gaien gainean. Halako batzordeen erregulazioa haiek sortzeko erabakiak edo ebazpenak emango du.

Bigarren xedapen gehigarria.- Zerbitzu-gomendioak

Ezertan eragotzi gabe asistentzia-ekintza publikoan jarduteko GUFEn alde xeda litezkeen gomendioek berekin dakarketen berriazko araubidea eta Gerentziak horretarako emaniko xedapenak, zerbitzu-zuzendaritzek izango dute, *ex aequo* eta oro har, gomendiook gauzatzeko erantzukizuna, eta, beraz, haiei dagokie, nori bere jarduera-eremuan, kasuan kasuko programa eta jardueren antolaketa eta funtzionamendua.

Lehen xedapen iragankorra.- Organo berriak

Kasuan kasuko organoak osatu bitartean, organoon eskumenak, erantzukizunak eta eginkizunak erregelamendu honen 12. artikuluan aurreikusitako moduan eta irismenarekin beteko dira.



Bigarren xedapen iragankorra.- Bulego Teknikoa

Erakundearen Bulego Teknikoaren osaera eta funtzionamendua taxutzen den bitartean, funtzionalki berari atxikiko zaizkio mantentze-lanei loturiko lanpostu guztiak, zeinahi zentro eta zerbitzutakoak direla, eta halakoak bulego horren mende egongo dira organikoki.

Hirugarren xedapen iragankorra.- Egoitza Harreraren Unitatea

Ezertan eragotzi gabe erregelamendu honetan jasotako xedapenak, Egoitza Harreraren Unitateak Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuaren mendean jarraituko du funtzionalki, hori xedatzen baitu bere 27. artikuluan Bizkaiko Foru Aldundiaren 70/2012 Foru Dekretuak, apirilaren 3koak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren araudi organikoa onesten duenak.

Laugarren xedapen iragankorra.- Jada hasita dauden prozeduren araubidea

Erregelamendu honen aldaketa indarrean sartu aurretik hasitako prozedurek aurreko araudia izango dute jarraibide.

Xedapen indargabetzailea

Indargabeturik geratzen dira erregelamendu honetan xedatutakoarekin kontraesanean dauden edo haren aurka doazen maila bereko edo apalagoko arauak.

Amaierako xedapena.- Erregelamendua garatzea eta indarrean jartzea

Baimena ematen zaio GUFEn gerenteari erregelamendu hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezko diren xedapen guztiak eman ditzan, eta ,bestetik, modu arautuan argitaratzen denean jarriko da indarrean erregelamendu hau.